



JESUITEN KOMENTUA
B MAILA
GARIBAI 19
GARIBAI 19 eta ANDIA 3


Egilea eta data: Matias Arteaga eta Justo Ibaseta, 1871; Juan Bautista Lazaro, 1902.

Deskribapena

Elizaz, komentuz eta atxikitako gelez osaturiko kantoiko eraikina. Cortazar zabalburako etxadien egoitza bilbera egokitzeko oso adibide interesgarria. Hortaz, orubearen zati handiena okupatzen duen eliza komentuko gelek inguratzen dute. Nabarmenki oktagonala duen oinplanoa 1870ean Antonio Cortazarrek proiektatutako eta, aurrerago, Matias de Arteagak eta Justo Ibasetak (1871) osatutako antzinako zirko antzokiaren oinplano zirkularreko aurreko horma perimetraletan oinarritua dago. 1897an jesuiten komentu bihurtu zen Sebastián Camioren eta Domingo Eceizaren proiektu batean oinarrituz. Proiektu horren bidez 1871n eraiki zen perimetrotako eraikuntzari oin bat gehitu zitzaion eta barrualdea eliz gisa erabiltzeko egokitu zen. 1902an J.B. Lazaroren eliz proiektua aurkeztu zen, Garibai kaleko fatxadaren eraldaketa partziala barne hartuz. Perimetrotako eraikuntzaren hirugarren eta laugarren (atzeraemana) oinak Manuel Urcolak proiektatu zituen 1943an. Elizaren erdian kupula gurutzelarkatua nabarmentzen da. Harlanduz eraikitako fatxadak konposizio klasizista du xehetasun neorromanikoekin. Horren inguruan etxadi honetan bereziki azpimarragarria da oinplanoarekin zentratutako elizaren sarrerako arkuak sortzen duen hutsune handia. Oinen bi aurretiko bisten artean –komentukoa eta aldameneko etxekoa– dagoen trantsizio elementu gisa agertzen den fatxadaren muturra da. Elizaren bigarren sarrera beste fatxadaren erdian dago. Kasu honetan bere konposizioa aldatu gabe, erlaitzaren gaineko errematearen ñabardura salbuesten badugu.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
 - Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrek: harlanduzko barrualdeko eta kanpoaldeko elementu guztiak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak:
 - * Elizaren nabea jatorrizko elementuekin kontserbatuko da, aldaketarik gabe.
 - * Erlaitzeko erremateak bere horretan utziko dira.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.